

Usurbildarrak aurrera

Usurbil

Ostiralean “Sagardoa bidegile” dokumentala proiektatuko da Sutegin

Posted on [2016/05/19](#) | [Iruzkina bat utzi](#)



Ostiralean (maiatzak 20) Pixel eta Elhuyarrek, ETBren partaidetzarekin ekoiztutako dokumentala proiektatuko da **Sutegin, arratsaldeko 19:00etan**: **“Sagardoa bidegile”**. Dokumentala Sagardo Egunaren Lagunak, Usurbilgo Udala eta Elhuyarren eskutik eskainiko da.

Iazko Donostiako Zinemaldian estreinatu zen dokumentala. Bertan Euskal Herriko sagardogileen

lana aztertzen da, ibilbide kultural, gastronomiko, zientifiko eta historiko bat proposatuz. Aipatzeako da dokumentalean hainbat aditu eta sagardogile agertzen direla, horien artean **Jakoba Errekondo** usurbildarra.

SAGARDOA BIDEGILE



SINOPSISIA

Urtean lau hilabetez, urtarriletik apirilera, euskal sagardotegiek milaka pertsona erakartzen dituzte, bertokoak zein kanpokoak. Tradizioa bete nahi dute denek: tortilla, bakailaoa, txuleta eta gazta jatea, eta txotxera deitzen duen ahotsa entzundakoan sagardoa edatea. Tradizio modernoa da hau, baina erro sakonak ditu. Dokumentalak bidaia moduan azalduko digu tradizio hau: **ibilbide geografiko, kultural, teknologiko eta gastronomikoa izango da**, ezustekoz betea.

GIDOIA ETA ZUZENDARITZA

Bego Zubia Gallastegik kazetari moduan lan egin du bai prentsa idatzian (*Egin* eta *Gara*), bai telebistan. Gaur egun *Teknopolis* zientzia dibulgaziorako teleaioa zuzentzen du (Elhuyar-ETB). *Sagardoa Bidegile* bere lehen dokumental luzea da. Aurretik iraupen ertaineko zenbait dokumental egin ditu telebistarako, hala nola *Viaje a la prehistoria* (2013) eta *Tras el hierro antiguo* (2014).

Informazio gehiago: www.sagardoabidegile.eus

